


INDUSTRIA-PRODUKZIOAREN INDIZEA. 2015eko MAIATZA

Euskal AEko industria-jarduera % 6,6 hazi zen 2015eko maiatzean

Aurreko hilabetearen aldean, % 0,2 handitu da Euskal AEko industria-produkzioaren indizea

Eustaten datuen arabera, Euskal AEko industria-produkzioa % 6,6 hazi zen 2015eko maiatzean, 2014ko maiatzaren aldean, betiere, lan-egutegiaren termino homogeneotan. Datu horrek industria jardueraren hazkundera finkatzen du; urteko lehen bost hilabetetan, % 2,6 hazi da orotara.

Aurreko hilabetearen aldean (2015eko apirila), eta behin urtarokotasunaren eraginak zuzendurik, % 0,2 hazi zen Euskal AEko industria-ekoizpena.



2015eko maiatzeko datuak 2014ko maiatzekoekin erkatuz gero, ikus daiteke bilakaera positiboa izan dutela lau industria-sektore handiek. Hala, *Kontsumo-ondasunak* % 6,1 hazi dira, batik bat *Kontsumo-ondasun iraunkorretan* izandako % 26,0ko

hazkundearen eraginez; izan ere, askoz ere txikiagoa izan da igoera (% 0,1) *Kontsumo-ondasun ez iraunkorretan*. *Ekipamendu-ondasunak* % 11,6 gehitu dira, *Bitarteko ondasunak* % 3,2, eta *Energia*, berriz, % 6,4.

Hiletik hilerako aldakuntza –2015eko apiriletik 2015eko maiatzera–, berriz, positiboa izan da *Bitarteko ondasunetan* (% 1,7 hazi dira). Baita *Kontsumo-ondasunetan*, guztira, ere (% 1,6 hazi dira); izan ere, *Kontsumo ondasun iraunkorrak* %0,2 hazi dira, eta *Kontsumo-ondasun ez iraunkorrak* % 2,2. Bestalde, % 1,0 jaitsi dira *Ekipamendu-ondasunak*, eta % 2,6 *Energiaren* alorrekoak.

Euskal industriagintzan pisu gehien duten sektoreei gagozkiola, honako hauek hazi dira nabarmenkien 2015eko maiatzean, urtetik urterako aldakuntzetan: *Garraio-materiala*, % 9,7 hazi delarik; *Makineria eta ekipamendua*, % 9,5 hazirik; eta *Zura, papera eta arte grafikoak*, % 7,7 hazirik.

1. taula. Euskal AEko Industria-produkzioaren indizea. Sektore nagusiak. Urte arteko aldakuntza-tasak. A-38 sektorizazioa. Behin-behineko datuak

	m / m-12
A38 SEKTORIZAZIOA	
SEKTORE NAGUSIAK⁽¹⁾	
10 - Metalurgia eta produktu metalikoak	3,5
16 - Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	6,9
09 - Kautxua eta plastikoak	-1,5
13 - Makineria eta tresneria	9,5
14 - Garraio-materiala	9,7
03 - Elikaduraren, edarien eta tabakoen industriak	-1,4
12 - Material eta tresneria elektrikoa	4,7
05 - Zurgintza, papera eta arte grafikoak	7,7

Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

(1) Industrian pisurik handiena duten sektoreak

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Gutiz bestela, beherakadak izan dira *Kautxu eta plastikozko produktuen* sektoreko indizean (% 1,5, hain zuzen), bai eta *Elikagai-, edari- eta tabako-industrien* indizean ere, % 1,4 beheratu denez urtetik urtera.

Lurralde historikoka, urtetik urterako bilakaera positiboa izan da maiatzean hiru lurraldeetan. Izan ere, % 8,7 igo da Bizkaian, % 5,7 Araban, eta % 5 Gipuzkoan. Hiletik hilerako aldakuntza-tasa ere positiboa izan da Bizkaian, % 1,9 igo baita, eta Araban, % 1,7 hazi da eta; Gipuzkoan, berriz, % 2,2 jaitsi da 2015ko apirilko datuen aldean.

2. taula. Euskal AEko Industria-produkzioaren indizea. Aldakuntza-tasak. Behin-behineko datuak. 2015eko maiatza

	Egutegiaren eragina zuzendutako datuak		Datu desestazonalizatuak	
	Mai2015/Mai2014	M(Mai2015)/M(Mai2014)*	Mai2015/Api2015	Api2015/Mar2015
Indize orokorra				
Euskal AE	6,6	2,6	0,2	3,0
Araba/Álava	5,7	-2,4	1,7	4,4
Bizkaia	8,7	6,0	1,9	1,5
Gipuzkoa	5,0	2,1	-2,2	4,0
ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK				
Kontsumo-ondasunak	6,1	7,2	1,6	1,7
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	26,0	20,0	0,2	7,0
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	-0,1	2,9	2,2	-0,2
Ekipo-ondasunak	11,6	4,8	-1,0	2,7
Bitarteko ondasunak	3,2	-0,4	1,7	0,8
Energia	6,4	1,9	-2,6	7,2

(*) 2015eko urtariletik oraingo hilera arte metatutako urte arteko aldaketa-tasa, 2014ko aldi beraren aldean

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizeari (IPI) buruzko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizeari (IPI) buruzko datu-bankua